

HORMA-IRUDI BAT EGITEARI BURUZKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Informazioa bilatzea	Informazioa nola bilatu planifikatu du, eta proposatutako bi taulak sakon kontsultatu ditu.	Informazioa nola bilatu planifikatu du, eta beharrezkoak diren atal gehienak kontsultatu ditu proposatutako tauletan.	Informazioa nola bilatu ez du nahikoa planifikatu, eta beti ez ditu kontsultatu beharrezkoak diren atalak proposatutako tauletan.	Informazioa nola bilatu ez du planifikatu, eta proposatutako tauletako atalak oso gutxi kontsultatu ditu edo atal bat ere ez du kontsultatu.
Informazioa hautatzea	Horma-irudian jarritako informazioa oso osoa da, garrantzitsua eta argia.	Horma-irudian jarritako informazioa, oro har, osoa da, garrantzitsua eta argia.	Horma-irudian jarritako informazioa mugatu samarra da, ez da oso garrantzitsua eta kasu batzuetan ez da oso argia.	Horma-irudian jarritako informazioa osagabea da, ez da garrantzitsua eta nahasgarria da.
Gaiaren ulermen orokorra	Landutako gaia ondo ulertzen duela erakutsi du.	Oro har, gaia ondo ulertzen duela erakutsi du.	Gaiko atal batzuk ez ditu behar bezala ulertu.	Gaia ez du asko ulertu.
Antolaketa	Elementuak ordena logikoan jarri ditu horma-irudian; horri esker, erraz irakurtzen da.	Elementuak, oro har, ordena logikoan jarri ditu horma-irudian; horri esker, ondo irakurtzen da.	Elementuak beti ez ditu ordena logikoan jarri horma-irudian; horregatik, batzuetan zaila da irakurtzea.	Elementuak ez ditu ordena logikoan jarri horma-irudian; horregatik, irakurmena nahasgarria da.
Diseinua eta maketazioa	Diseinua eta maketazioa erakargarriak eta originalak dira. Dekorazio-elementu esanguratsuak sartu ditu, kartela irakurtzea errazten dutenak.	Diseinua eta maketazioa, oro har, erakargarriak dira. Dekorazio-elementu esanguratsuak sartu ditu, kartela irakurtzea zailtzen ez dutenak.	Diseinua eta maketazioa egokiak dira; hala ere, dekorazio-elementu batzuk ez dira esanguratsuak, eta ez dute laguntzen kartela irakurtzen.	Diseinua eta maketazioa desagokiak dira; jarritako elementuak ez dira oso esanguratsuak, eta kartela irakurtzea zailtzen dute.

